



BILBOKO
HIRUHILEKO
KOIUNTURA
TXOSTENA
2026

Bilbao Observatorio

LABURPENEA

Nazioarteko Diru Funtsaren aurreikuspenen arabera (2026ko apirila), munduko hazkunde ekonomikoa % 3,1ekoa eta % 3,2koa izango da 2026-2027 biurtekoan. Onartzen da "erreferentziazko aurreikuspena" dela, Iranen gatazkak izango duen iraupenari eta lehengaien merkatuetan —eta bereziki energia-merkatuetan— izango duen eraginari buruzko ikuspegi zuhur baina nahiko baikorrean oinarrituta. Horrek guztiak inflazioan eta finantza-baldintzetan izan ditzakeen ondorioak ere kontuan hartzen dira.

Munduko ekonomia % 3,1 eta % 3,2 haziko da 2026an eta 2027an

NDFk egindako eguneratzeak (urtarrilarekiko) ehuneko 0,2 puntu jaitsi du munduko hazkunde ekonomikoa 2026rako, baina eutsi egin dio 2027rako. Izan ere, proiektzioaren agertokiaren ziurgabetasunari eta arriskuei buruzko argudioak partekatuak dira. Zehazki, zenbait erakunde garrantzitsuk egindako aurreikuspenak mugatuagoak izan dira: % 2,7 (Nazio Batuak) eta % 2,9 (ELGA). Hala, litekeena da aurreikuspenetan doikuntza handiak egitea (gorantz edo beherantz), tentsio geopolitikoen eta inflazioaren bilakaeraren (batez ere) arabera, besteak beste. 2026rako aurreikuspenak % 1,8koa eta % 1,1ekoa dira, hurrenez hurren, ekonomia arreratuentzat eta Eurogunearentzat.

Baina ez da baztertzen % 3tik beherakoa izatea

Eusko Jaurlaritzak bere aurreikuspenak eguneratu ditu (2026ko martxoa). Aurreikuspen horiek "jarraitutasun-hipotesietan oinarritutako agertoki nagusi baten arabera egin da, gatazkaren ondoriozko aparteko astinaldirik kontuan hartu gabe". Euskal ekonomia 2026an eta 2027an % 1,9 eta % 1,6 haziko dela mantentzen du, beraz, ez ditu 2025eko abenduko iragarpenak aldatzen. Azken hirurtekoan bezala, erabakigarria da barne-eskariaren portaera ona, eta, bereziki, familia-kontsumoarena, euskal ekonomiaren hazkunde jarraituaren bultzatzaile baita.

EAEko ekonomia % 1,9 haziko da 2026an

2026ko lehen hiruhilekora arte eskuragarri dauden datuek erakusten dutenez, 2025eko bigarren seiuhilekoko jarduera onak bultzatuta hasi zen urtea, eta oraindik ere eragin txikia izan zuen egoera-aldaketak (otsailaren 28a, Irango gerra), baina nabarmenagoa izan da hurrengo hilabeteetan (petrolioaren eta gasaren prezioen eta horien eratorrien eragina, inflazioaren gorakada eta produktuen eskasia potentziala, kerosenoarena, besteak beste).

Lehen hiruhilekoan Bilbok balantze positiboa izan du

Horrela, Hiribilduko lan-merkatuaren adierazleek urte hasiera positiboa berresten dute, 199.630 pertsona afiliatu baitziren Gizarte Segurantzaren (martxoa) (+% 0,3; +587 afiliazio), Araubide Orokorreko afiliazioak hobera egin zuelako (+% 0,5), eta horrek konpentsatzen du autonomoen araubidean (-% 0,5) eta etxeko langileenean (-% 0,8) izandako beherakada.

Martxoan, 199.630 afiliatu

Halaber, 2026ko lehen hiruhilekoan 26.522 kontratu berri erregistratu dira Bilbon bizi diren pertsonentzat, hau da, urte arteko % 2,9ko igoera (+748 kontratu), eta nabarmentzekoa da heren bat kontratu mugagabeak direla (% 31,1).

...26.522 kontratu berri (urtarrila-martxoa)

Oro har, Bilboko egoiliarren afiliazioak eta kontratazio berriak hiribilduko enpleguaren finkapena berresten dute (urte arteko tasan), hiruhileko arteko beherakada erregistratu duten arren (-% 1,1 eta -% 18,3, hurrenez hurren). Bilboko langabeziaren beherantzko joera finkatu egin da: martxoan 21.007 langabe erregistratu dira, eta urte arteko beste jaitsiera bat izan dute (-% 1,5; -329 pertsona) eta hamabost hilabetez jarraian behera egin dute urte artean (2025eko urtariletik).

...hamabost hilabetez jarraian jaitsi da langabezia (martxoa, -% 1,5, urte arteko tasan)

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (EIN) arabera, Bilbon bizi den biztanleria aktiboa 177,0 mila pertsonakoa da, eta urte arteko jaitsiera (-% 7,0; -13.300 pertsona) 2025eko lehen hiruhilekoan zenbatetsitako aparteko balioari zor zaio (190,3 mila pertsona¹). Balio hori biztanleria landunari (-% 2,5; -4,2 mila pertsona) eta langabeari (-% 40,4; -9,0 mila pertsona) dagokie; haien balio

¹ Aparteko zifra, azken lau urteetako batez besteko baliotik oso urrun (2022tik 2025era, 174,9 mila pertsona).

zenbatetsiak 163,8 eta 13,3 mila pertsonakoak dira. Zenbatespen horiek oso aldakorrak direnez, tentuz ibiltzea gomendatzen da, eta, gutxienez, iturri hori bakarrik ez hartzea Bilboko lan-merkatuaren bilakaeraren erreferentzia nagusitzat.

2025ean, merkataritza-sektoreko salmentek goranzko ibilbidea berretsi dute prezio arruntetan (+% 2,2; +% 0,4, +% 3,1 eta +% 1,9; lehenengo hiruhilekotik laugarrenera). Batez ere txikizkako osagaiaren jarduera positiboak bultzatu du hori (+% 3,8, +% 4,1, +% 4,6 eta +% 3,6), handizkakoaren galera-profila eta ibilgailuen salmentaren eta konponketaren hegazkortasuna konpentsatzen baititu, positiboa bada ere (+% 0,7, +% 2,4, +% 18,2 eta +% 4,5). Emaizta horiek nabarmen handiagoak dira prezio konstanteetan (+% 0,3, -% 0,7, +% 2,2 eta -% 0,1), eta ekarpen bera egiten dute lehen aipatutako jarduera-osagaiek.

Laugarren hiruhilekoa merkataritza-sektorearen salmenten igoerarekin itxi zen (+% 1,9)

2025ean enpleguaren hazkunde-profila gailentzen da, eta emaitza negatibo bakarra erregistratu da urteko lehen hiruhilekoan (-% 0,3). Beraz, hurrengo hiruhilekoetan hobekuntza-ibilbidea berresten da (+% 1,4, +% 2,0 eta +% 1,6), eta horrek sendotu egiten du Hiribilduko sektoreko enplegua.

Eta sektoreko enpleguaren hobekuntzarekin (+% 1,6)

2026ko lehen hiruhilekoko datuen arabera, txikizkako merkataritzaren finkatze-bideak bere horretan jarraituko du, Bizkaiko merkataritzagune handien salmentak hobetu egin baitira (+% 3,4 eta +% 0,2, prezio arruntetan eta prezio konstanteetan). Hala ere, hazkundearen erritmoa moteldu egin da eta sektoreko enplegua zertxobait jaitsi da (-% 0,2).

2026a Bizkaiko saltoki handietako salmenten hazkundearekin abiatu da

Hobekuntza hori ibilgailu berrien matrikulaziora zabaldu da Bizkaian, 3.668 unitaterekin (+% 8,0; +273 ibilgailu). Emaizta hori partikularren segmentuaren bultzadari zor zaio (+% 5,3), hala nola enpresen eta beste batzuen segmentuari (+% 14,4), eta partikularren kanalari dagokio matrikulazio gehiena (% 68). Aipatu behar da 2026an aldaketa bat gertatu zela estatuan ibilgailuak erosteko laguntzetan. Auto+ Planak, MOVES Plana ordezkatzan duenak, zenbateko desberdineko laguntzak ematen ditu, ibilgailua elektrikoa edo elektrifikatua den, modeloa eskuragarria den edo jatorri europarrekoa den kontuan hartuta, eta, berrikuntza gisa, laguntza erosketa egiten den unean aplikatzen da. Aldi berean, EEEk emisio gutxiagoko ibilgailuentzako laguntza-programa bat du.

Eta 3.668 unitate berri matrikulatu dira (+% 8,0)

2026ko lehen hiruhilekoan, Bilbon urte arteko gorakada txiki bat izan da hotel-jardueran, 240.938 bidaiarirekin eta 446.192 gaualdirekin (+% 1,5 eta +% 1,9, hurrenez hurren). Emaizta hori atzerriko merkatuaren hazkundeari zor zaio (+% 8,5, bi aldagaian), eta estatuko merkatuaren jaitsiera konpentsatzen du (-% 2,7 eta -% 3,0 bidaiarietan eta gaualdietan). Nolanahi ere, jardueraren erdia baino gehiago hartzen du (bidaiarien % 59,6 eta gaualdien % 54,2), eta batez besteko egonaldia txikiagoa da (1,69 eta 2,09 egun, hurrenez hurren).

Hotel-jarduera areagotu egin da (+% 1,5 eta +% 1,9, bidaiari eta ostatu-gauetan)

Loiuko aireportuak dinamismo hori partekatzen du urtearen hasieran, 1.394.695 bidaiarirekin, 2025eko lehen hiruhilekoan baino 83.603 bidaiari gehiago (+% 6,4, urte arteko tasan). Hobekuntza hori nazioarteko segmentuan oinarritzen da (+% 18,1), estatuko segmentuaren atzerapen arina konpentsatzen baitu (-% 0,7). Hala ere, jardueraren erdia baino gehiago dagokio segmentu horri (hegaldi komertzialetako bidaiarien % 58,2).

Jarduerak gora egin du Loiuko aireportuan (+% 6,4, urte artekoa)

Bilboko portuak 8.353,7 mila tonako mugimenduarekin hasi zuen 2026ko ekitaldia, hau da, % 2,4ko hazkundearekin 2025eko lehen hiruhilekoaren datuekin alderatuta. Zalantzarik gabe, jardueraren hazkunde horretan lagundu du MSCk Kanadara eta Hego Amerikako mendebaldeko kostaldera bideratutako zuzeneko bi linea berri abian jartzeak 2025eko abenduan. Horrela, Bilboko portuko agintaritzak 2026rako ekitaldi ona iragartzen du, baina betiere Suezi eta Ormuzi begira.

Bilboko portuaren urte hasiera ona (+% 2,4, urte arteko tasan)

Bizkaiko industria-produkzioak nabarmen egin du gora 2026ko lehen hiruhilekoan (+% 2,0), eta hazkundearen hirugarren hiruhileko jarraitua izan da, 2025eko lehen seiuhilekoan izandako dezeleraziotik urrunduta. Manufaktura-industriaren produkzioaren dinamismoa (+% 2,3) erabakigarria da² emaitza orokorrean, konpentsatu egiten baitu erauzketa-industrien (-% 21,2) eta energia eta gasaren (-% 1,7) narriadura. Urak, aldiz, profil laua izan du (% 0,1); 2025ean bilakaera-profil hobea erakutsi zuen.

Bizkaiko industria-produkzioa % 2,0 hazi da (urte arteko tasa)

Merkatuko zerbitzuen salmenten ibilbideari buruzko daturik ez badago ere, 2025ean hobekuntza iraunkorreko profila erakutsi zuten: sektoreko salmentek hazkunde handia izan zuten laugarren hiruhilekoan (+% 4,4 eta +% 1,4 prezio korranteak eta konstanteak), eta horrek bigarren seiuhilekoan izandako jarduera hobetzen lagundu zuen.

...eta merkatuko zerbitzuak hazi egin ziren 2025eko laugarren hiruhilekoan (+% 4,4 eta +% 1,4, prezio arruntak eta konstanteak)

Lehen hiruhilekoko aurrerapen-datuen arabera, EAEko ekonomiak % 2,2ko urte arteko hazkunde izan du, 2025eko ibilbidearekin lotuta (+% 2,1, +% 2,2, +% 2,3 eta +% 2,4, lehenengo hiruhilekotik laugarrenera). Emaitza hori orientagarria da Bizkaiaarentzat, % 2,3 hazi baitzen 2025ean (EAE bezala), baina bigarren seiuhilekoan hobea izan zen (+% 2,1, +% 2,2, +% 2,4 eta +% 2,4). Emaitza oso positiboa da, ekitaldiaren ziurgabetasuna ikusirik. Izan ere, neurri handi batean egitura ekonomiko-produktiboarekiko exogenoak diren faktoreek baldintzatuta egon da (gatazka belikoak, tentsio geopolitikoak eta ziurgabetasun juridikoa).

2025ean, Bizkaiko BPGd-a % 2,3 handitu zen

Modu paraleloan, emaitza horiek enplegua bultzatzen dute, eta maximo historiko berri batera iritsi da: 501.586 lanpostukoa da (+% 1,6), lehen aldiz (urteko batez bestekoan) milioi erdi lanposturen muga gaindituz.

501.586 LOB lanposturekin

Laburbilduz: 2026ko lehen hiruhilekoan Bilborako eta Bizkairako eskura dauden datuek ez dute oraindik islatzen Irango gerraren eta Ormuzeko itsasartearen inguruan sortutako aldakortasuna eta ziurgabetasuna. Hain zuzen ere, 2026ko ezegonkortasun-faktore nagusia izango dela dirudi. Era berean, uste da, zenbat eta gehiago luzatu, orduan eta eragin handiagoa izango duela prezioetan, instalazioetan eta energia-horniduran. Ondorioz, ebazteko denbora funtsezko faktorea da inflazioan izango duen eragina zehazteko —eta, ondorioz, finantza-kostua handitzeko— eta, batez ere, munduko hornidura-kateak eta ekoizpena eta merkataritza eta, ondorioz, hazkunde ekonomikoa zalantzan jartzeko.

Urtearen hasierak 2025eko "aldeko haizea" erakusten du

Hala ere, orain arte, Bilbok eta Bizkaiak ibilbide erresilientea finkatu dute— ziurgabetasun-maila handiko agertoki batean, 2020az geroztik—. Hala islatzen da merkatuaren adierazleen bilakaeran, oso positiboak izan baitira, eta afiliazio-maximo historikoak batzen jarraitzen du, erregistratutako langabeziak beheranzko bideari eusten dion bitartean. Oraindik ere gainditu gabe dago krisi honen —2026koaren— aldi baterako eraginari aurre egiteko erronka, baina ahaztu gabe egiturazko erronkak ere hor daudela: biztanleriaren zahartzea gero eta handiagoa izatea eta talentua erakartzea eta fidelizatzea, zerbitzu aurreratu eta teknologikoak sendotzea, industria-ekoizpenaren lehiakortasuna eta nazioartekotzea indartzea, eta energiarekiko mendekotasuna murriztea (hornidurari nahiz kostuari dagokienez).

...eta adierazlerik onena enplegua da, maximo historikoen balioak izaten jarraitzen baitu

² Manufaktura-industria Bizkaiko industriako BEGd-aren % 82,5 da; gainerakoa energia elektrikoaren eta gasaren hornidurari (% 14,0) eta urari (% 3,1) dagokie, eta erauzketa-industria marjinala da (% 0,4). Iturria: Kontu Ekonomikoak, 2024 (Eustat). Erauzketa-industriak.

TESTUINGURUA

Munduko ekonomia

Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) egoera makroekonomikoaren aurreikuspena (2026ko apirila) *"Ekialde Ertaineko gerrak iraupen eta irismen mugatuko izaten jarraituko duen hipotesiarekin egin da; hala, mundu mailako hazkundera 2026an % 3,1era eta 2027an % 3,2ra arte moteltzea aurreikusten da. 2026rako inflazio orokorraren igoera txiki bat proiektatzen da, 2027an berriro ere behera egingo lukeena"*. Onartzen da "erreferentziazko aurreikuspena" dela, gatazkak izango duen iraupenari eta lehengaien merkatuetan —eta bereziki energia-merkatuetan— izango duen eraginari buruzko ikuspegi zuhur baina nahiko baikorrean oinarrituta. Horrek guztiak inflazioan eta finantza-baldintzetan izan ditzakeen ondorioak ere kontuan hartzen dira.

Munduko ekonomia
% 3,1 eta % 3,2 haziko
da 2026an eta 2027an

Proiektzioaren agertokiaren ziurgabetasunari eta arriskuei buruzko argudioak partekatuak dira. Zehazki, zenbait erakunde garrantzitsuk egindako aurreikuspenak mugatuagoak izan dira: % 2,7³ eta % 2,9⁴, ziur asko, estimazioa egindako uneak baldintzatuta⁵. Hala, litekeena da aurreikuspenetan doikuntza handiak egitea (gorantz edo beherantz) tentsio geopolitikoaren bilakaeraren arabera (batez ere)⁶. Hala, eta horren guztiaren ondorioz⁷, NDFk aurreikusi du munduko inflazioa % 4,4ra igoko dela 2026an, eta % 3,7ra jaitsiko dela 2027an, gorantz berrikusitakoa izanik. Horrela, apirileko proiektzioek (2026ko urtarilekoaren arabera eguneratuak) ehuneko 0,2 puntu jaitsi dute munduko hazkunde ekonomikoa 2026rako, baina mantendu egin dute 2027rako. Kontua da, gatazka hori egon ezean, Nazioarteko Diru Funtsekin gorantzko berrikuspen txiki bat egingo zukeela 2026rako (+0,1 ehuneko puntu), eta beherantzko berrikuspena irekita utzi du, gatazkaren iraupenari eta intentsitateari dagokionez egoera okerragoak gertatuz gero ere, % 2-% 2,5eko tartea aipatuz.

Baina ez da
baztertzen % 3tik
beherakoa izatea

Doikuntza hori herrialdeen arabera aplikatzen da, eta nabarmentzekoa da AEBrako zenbatetsitako hazkunde ekonomikoa zertxobait jaitsi dela (-0,1 ehuneko puntu; +% 2,3), Eurogunerako, aldiz, murrizketa handiagoa da (-0,2 ehuneko puntu; +% 1,1). Alemaniak du berrikuspenik txarrena (-0,3 ehuneko puntu; +% 0,8), eta Frantziakoa (-0,1 ehuneko puntu; +% 0,9), Espainiakoa (-0,2 ehuneko puntu; +% 2,1) eta Italiakoa (-0,2 ehuneko puntu; +% 0,5) txikiagoak izan dira, Eurogunekoaren antzekoa izan baita. Hazten ari diren eta garatzen ari diren ekonomiei dagokionez, nahiz eta beherantz eguneratu den haien hazkundera (-0,3 ehuneko puntu; +% 3,9), Indiak (+0,1 ehuneko puntu) eta, batez ere, Brasilek eta Errusiak (+0,3 ehuneko puntu, bi kasuetan) aurreikuspenak hobetu dituzte, ez, ordea, Txinak (-0,1 ehuneko puntu).

2026an, Eurogunea % 1,1
haziko da, eta Espainia,
% 2,1

NDFren arabera, emaitza horiek faktore garrantzitsuek baldintzatzen dituzte, maila eta inpaktu-arlo desberdinekin; izan ere, *"egoera geopolitikoaren bilakaera gorabehera, merkataritza-erabakiek berpiztu daitezke (...). Lur arraroek munduko hornidura-kateetan duten funtsezko garrantzia tentsio-iturri berezia bihurtu da. Adimen artifizialari (AA) lotutako irabazi-*

³ Nazio Batuen Erakundeak (*World Economic Situation and Prospects 2026* (WESP), 2026ko martxoaren 14koa), % 2,7ko eta % 2,9ko hazkunde-ingurunea aurreikusten du 2026 eta 2027rako. Txostenak tentsio geopolitikoak eta gatazka belikoak nabarmentzen ditu, baita munduko merkataritzaren dezelerazioa eta inflazio-presioak ere. Horiek nabarmenagoak izango dira gorabidean dauden eta garatzen ari diren ekonomietan.

⁴ 2026ko martxoaren 26ko OECDren (ELGAren Aurreikuspen Ekonomikoak) arabera, 2026an % 2,9ko mundu-hazkundera izango du, "Ekialde Ertaineko gatazkaren ondorioz arrisku nabarmenak izanik". Hala eta guztiz ere, ELGAren taldean enpleguak duen indarra azpimarratu du, 2026an % 0,7ko hazkunde-aurreikuspenarekin.

⁵ Irango gerra otsailaren 28an hasi zen.

⁶ Aipamen berezia eginez Trumpen Administrazioaren dinamismoari urteko lehen lauhilekoan: Venezuelan sartu-irten militarra (urtarrilaren 3an), Groenlandian (interesa-adierazpen desberdinak eta baita erosteko proposamena ere, 2025ean eta 2026ko lehen hilabeteetan) edo Kuban (adierazpen ugari, ekimen zehatzik gabe, orain arte).

⁷ Horrek guztiak lausotu egiten du adimen artifizialak ekoizpen-egituretan izango duen benetako eragina —eta hori noiz gauzatuko den—; aldi berean, merkatuaren itxaropenak gero eta ageriago uzten ditu, une honetan enpresa teknologikoko horien aldeari inoizko burtsa-baliorik handienak aitortzen baitizkiote..

itxaropenen berrikuste batek edo, lehia gogortzearen ondorioz, bideragarriak diren irabazi-marjinen itxaropenak txikitzeak —nahiz eta produktibitate-gehikuntzak lortu— inbertsioa gutxitu lezakete eta finantza-merkatuetan bat-bateko zuzenketa bat eragin"

Hazkunde ekonomikorako (BPGd) ...(e)(a)n egindako aurreikuspenak

	2026ko urtarila			2026ko apirila	
	2025	2026	2027	2026	2027
MUNDUKO BPGd-a	3,3	3,3	3,2	3,1	3,2
Ekonomia aurreratuak	1,7	1,8	1,7	1,8	1,7
Estatu Batuak	2,1	2,4	2,0	2,3	2,1
Eurogunea	1,4	1,3	1,4	1,1	1,2
Alemania	0,2	1,1	1,5	0,8	1,2
Frantzia	0,8	1,0	1,2	0,9	0,9
Italia	0,5	0,7	0,7	0,5	0,5
Espainia	2,9	2,3	1,9	2,1	1,8
Emergenteak eta garatzen ari direnak	4,4	4,2	4,1	3,9	4,2
Txina	5,0	4,5	4,0	4,4	4,0
India	7,3	6,4	6,4	6,5	6,5
Brasil	2,5	1,6	2,3	1,9	2,0
Errusia	0,6	0,8	1,0	1,1	1,1

Iturria: Nazioarteko Diru Funtza (data bakoitzari dagozkion aurreikuspenak)

Ziurgabetasun-testuinguru horretan, Europako etheen konfiantza⁸ negatiboa da 2026ko lehen hiruhilekoan (-12,9 puntu), eta horrek oraindik ez du jasotzen Irango gerrarekin izandako okertzea, horren eragina inflazioaren gorakadan azaleratuko baita. Espainiako profila⁹ ez da erkidegoko batez bestekoa bezain ezkorra (-2,0 puntu).

Etxeetako ezkortasunak okerrera egingo du inflazioak gora egin ahala

Nabarmentzekoa da Espainiako etheen¹⁰ aurrezkiaren hobekuntza-ibilbide metatua, urteko lehen hiruhilekoan berriro hazi dena (+% 4,5), jarduera ekonomiko hobeak bultzatuta (Alemaniaren, Frantziaren edo Italiaren aldean, adibidez, BPGaren hazkunde-ibilbide hobearekin), eta, batez ere, enpleguaren sendotasuna (afiliazioaren joera-hazkundera, adibidez, eta erregistratutako langabeziaren jaitsieran, argi eta garbi islatzen dena).

Espainiako familiak aurrezki-oinarria sendotzen jarraitzen dute (+% 4,5)

Etheen konfiantza eta aurrezkia

	2024	2025	2025				2026
			I	II	III	IV	I
Etheen konfiantza¹ (±100)							
UE-27	-12,9	-13,1	-13,3	-13,6	-13,2	-12,4	-12,9
Espainia ²	-15,2	-2,3	--	-3,3	-2,7	-0,9	-2,0
Etheen aurrezpena³; Δ % urte artean	4,2	3,5	4,6	3,9	5,3	3,5	4,5

- Hiruhileko datua, hileko datuen batezbestekoa eta urteko datua, hiruhileko datuen batezbestekoa.
- Eurostat; 2025eko II. hiruhilekotik aurrera, serie berria Espainiarentzat, eta ezin da alderatu 2024ra arte erabilgarri dagoenarekin.
- Gordailuak. Hiruhileko datua, hiruhileko bakoitzaren azken hilabetearen itxierari buruzkoa, eta urteko datua, urte bakoitzeko abenduari dagokiona.

⁸ Kontsumitzaileen konfiantza-adierazleak etxeek honako hauen bilakaerarekin dituzten itxaropenak jasotzen dituzte: ekonomia orokorra, etxeko ekonomia, langabeziaren eta aurrezteko gaitasuna. Datozen 12 hilabeteetan egungo egoerarekin (kontsultaren unea) alderatuta duten egoera baloratzen dute. Emaita-tartea -100 (ezkortasun handiena) eta +100 (baikortasun handiena) artekoa da.

⁹ Eurostatek (Restoration of consistent consumer survey time series for Spain, 2025eko abendua) Espainiako Kontsumitzaileen Konfiantza Indizearen seriea eguneratu du, 2025eko lehen hiruhilekotik etenda zegoena (hornitzaile-aldaketa eta doikuntza metodologikoa).

¹⁰ Espainiako etheen Bestelako Finantza Erakunde Monetarioetako gordailuen saldoa. 1.074.538 milioi euro dira, 2026ko martxoaren itxieran.

Euskal ekonomia

Eusko Jaurlaritzak bere aurreikuspenak eguneratu ditu¹¹. Aurreikuspen horiek "jarraitutasun-hipotesietan oinarritutako agertoki nagusi baten arabera egin da, gatazkaren ondoriozko aparteko astinaldirik kontuan hartu gabe". Euskal ekonomia 2026an eta 2027an % 1,9 eta % 1,6 haziko dela mantentzen du, beraz, ez dituzte 2025eko abenduko iragarpenak aldatzen, nahiz eta doikuntza batzuk egin diren. Horrela, 2026 eta 2027rako beherantz doitzen da (-0,1 ehuneko puntu) etxeetako kontsumoa (+% 2,0 eta +% 1,6), eta hobetu egiten da (+0,1 ehuneko puntu) kontsumo publikoa (+% 2,0 eta +% 1,7); Kapitalaren Eraketa Gordina, berriz, gorantz egokitzen da 2026an (+% 3,3; +0,2 ehuneko puntu), eta jaitsi egiten da 2027an (+% 2,3; -0,4 ehuneko puntu). Horrela, barne-eskariaren ekarpena (+% 2,3) hazkundearen bultzatzailea da, kanpo-saldoaren eragin negatiboa konpentsatuz (-% 0,4).

EAEko ekonomia % 1,9
haziko da 2026an

Etxeetako kontsumoa
(+% 2,0) erabakigarria
izango da

Ekitaldian zehar hazkundearen profila beheranzkoa izango da, eta urte arteko tasa % 2 baino handiagoa eta txikiagoa izango da urteko lehen eta bigarren seihilekoetan. Eustaten arabera¹², aurreikuspen horrekin bat etorrira, euskal ekonomia % 2,2 hazi zen lehen hiruhilekoan.

2026ko sektore-hazkunde ekonomikoari dagokionez, aurreikuspen eguneratuen arabera, dezelerazioa dago industria-energian (+% 0,9; -0,1 ehuneko puntu) eta eraikuntzan (+% 2,6, -0,1 ehuneko puntu); zerbitzuen aurreikuspena, berriz, ez da aldatu (+%2,1), funtsezko zeregina baitu baterako emaitzan, eta lehen sektorearen aurreikuspena baino ez da hobetzen (+% 0,8; +0,4 ehuneko puntu), pisu marjinalarekin. 2027ari dagokionez, ez da aldaketarik egin industria-energian eta zerbitzuetan (+% 1,5 eta +% 1,6, hurrenez hurren), eta lehen sektorerako (-0,4 ehuneko puntu; +% 2,2) eta eraikuntzarako (-0,2 ehuneko puntu; +% 1,5) aurreikuspenek okerrera egin dute.

Euskal Autonomia Erkidegoa. Egoera makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	(Hiruhilekoko bereizketa)				2026	2027
	I-26	II-26	III-26	IV-26		
BPGd-a	2,2	1,9	1,7	1,7	1,9	1,6
Etheen kontsumoa	2,3	2,1	1,8	1,6	2,0	1,6
Kontsumo publikoa	2,1	2,0	1,9	1,8	2,0	1,7
Inbertsioa (KEG)	4,8	3,6	2,2	2,4	3,3	2,3
Barne-eskariaren ekarpena	2,9	2,5	2,0	1,9	2,3	1,8
Kanpo-saldoaren ekarpena	-0,8	-0,5	-0,3	-0,2	-0,4	-0,2
Lehenengo Sektorea	-0,5	-0,1	1,7	2,0	0,8	2,2
Industria eta energia	0,7	0,8	0,9	1,1	0,9	1,5
Eraikuntza	4,1	3,3	1,6	1,5	2,6	1,5
Zerbitzuak	2,6	2,2	1,9	1,7	2,1	1,6

Iturria: Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoa Zuzendaritza (2026ko martxoa).

EAEko termometro ekonomikoa¹³ 100,6 puntukoa izan da urteko lehen hiruhilekoaren amaieran (martxoa), eta, beraz, "hazkunde sendo" baten barruan mantendu da, nahiz eta aurreko hiruhilekoaren itxiera baino txikiagoa izan (104,2 puntu, abendua). Halaber, datu horrek erakusten du bederatzi hilabetez jarraian 100 puntutik gorako ibilbidea izan duela, baina egiaztatzen da bere profila beheranzkoa dela, hilabetez hilabete, urtearen hasieratik.

Dinamismoa mantendu
egin da lehen
hiruhilekoan (EAEko
termometroa)

¹¹ 2026ko martxoan argitaratutako kalkuluak.

¹² 2026ko apirilaren 17an argitaratu ziren.


¹³ Erreferentzia-unearen egoeraren adierazlea: hazkunde ertaina (100 eta gehiago), leuna (50-100) eta desazkundera (50etik behera).

Euskal enpresen itxaropenak¹⁴ 2026an hobetu egin ziren, enpresen itxaropenak hobetu zirenean (56,5, +2,9 puntu), neurri handi batean, prezioek gora egin zutelako, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta 17,7 ehuneko puntu igo baitziren. Gainerako osagaiak egonkor mantendu ziren, edo dezelerazio txiki baten barruan.

Euskadiko etxeek¹⁵ emaitza negatiboa (-8) baina aurreko hiruhilekoaren antzekoa (-9) finkatuz hasi dute 2026a, oraindik Irango gerraren eragina jaso gabe. Argi eta garbi, ekonomia orokorraren martxa (-24) eta prezioen bilakaerari buruzko itxaropenak (-19) dira EAEko etxeen konfiantza murrizten duten elementu nagusiak.


Euskadiko etxeak, nolabaiteko ezkortasunaren barruan (-8)

Euskal ekonomiaren termometroa: adierazle sintetikoa



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Zuzendaritza

EAEko enpresa-aurreikuspenak



Iturria: Enpresa-konfiantza. Laboral Kutxa

Euskal etxeen konfiantza

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	2023	2024	2025	2025				2026
				I	II	III	IV	I
Etxeen konfiantza (-100 eta +100 artean)	-9	-4	-6	-4	-6	-6	-9	-8

Iturria: EAEko etxeen konfiantza. Laboral Kutxa

¹⁴ EAEan aktibo dauden 400 enpresari egindako inkesta (2026ko azaroaren 7tik 12ra). Enpresa-itxaropenak, adierazle partzialen batez bestekoa.

¹⁵ EAEko 800 etxetan egindako kontsulta, 2026ko otsailaren 9tik 27ra.

Prezioak eta inflazioa

Martxoa ixtean, KPI orokorraren urte arteko hazkundea % 3,4koa izan da Espainian eta EAEn, eta % 3,7koa Bizkaian. Hala, urrundu egin da 2025eko irail-urritik 2026ko urtarril-otsailera arte izandako beheranzko prozesutik, prezioen hazkundea tarte hauetan ibili da Espainian eta EAEn: % 2,3 eta % 2,4 (pixka bat handiagoa Bizkaian, % 2,6 eta % 2,7). Azken finean, martxoak hautsi egin du ibilbide deflazonario hori, hilabete horretan Irango gatazkak duen eragina azaleratu baita (erregaien prezioak eta horien eragin kateatua).

Martxoak inflazioaren gorakada berretsi du, % 3tik gorakoa

Azpiko inflazioak eutsi egin dio 2025eko udazkenetik erregistratzen ari zen goranzko profilari (+% 2,9 eta +% 3,0 Estatuan eta EAEn, 2026ko martxoan), eta berretsi egin da 2026ko lehen hiruhilekoan. Inflazioaren bilakaerak gerraren bilakaerari eta haren ondorioei lotuta jarraituko du, eta horiek murrizteko neurriak nabarmenduko dira, hala nola Gobernuak 2026ko martxoaren 20an¹⁶ energiaren eta erregaien gainean hartutako beherapen fiskalak, ekainera arte jarraitzea aurreikusten baitute.

KPI Espainian, EAEn eta Bizkaian

		Urte arteko aldakuntza-tasa, %					
		KPI orokorra			Azpiko KPIa ¹		
		Estatua	EAE	Bizkaia	Estatua	EAE	
2025	urtarrila	2,9	3,5	3,4	2,4	2,9	
	otsaila	3,0	3,3	3,1	2,2	2,4	
	martxoa	2,3	2,8	2,7	2,0	2,5	
	apirila	2,2	2,6	2,5	2,4	2,8	
	maiatza	2,0	2,4	2,4	2,2	2,5	
	ekaina	2,3	2,8	2,8	2,2	2,7	
	uztaila	2,7	3,0	2,9	2,3	2,5	
	abuztua	2,7	2,8	2,7	2,4	2,5	
	iraila	3,0	3,3	3,2	2,4	2,6	
	urria	3,1	3,2	3,3	2,5	2,5	
	azaroa	3,0	3,2	3,4	2,6	2,7	
	abendua	2,9	2,9	3,0	2,6	2,4	
	urteko batezbestekoa	2,7	3,0	3,0	2,4	2,6	
2026	urtarrila	2,3	2,3	2,6	2,6	2,6	
	otsaila	2,3	2,4	2,7	2,7	2,7	
	martxoa	3,4	3,4	3,7	2,9	3,0	

1. Landu gabeko elikagaiarik eta produktu energetikorik gabe. Ez dago eskuragarri Bizkaian.
Iturria: EIN. 2025 oinarria

2026ko martxoan KPI Orokorrak Harmonizatuari (Eurostat) buruzko datuek berretsi egin dute inflazioaren gorakada hori Eurogunean (+% 2,6; +% 0,6 abenduarekin alderatuta); hala, urrundu egin da % 2ko helburutik eta oraindik ez da azpiko osagaian azaleratu (+% 2,2; -0,1 ehuneko puntu). Baina, batez ere, agerian geratzen da herrialdeen arabera egoeren desberdintasuna: Espainiak eta Alemaniak izan dituzte inflazio-erregistro handienak (orokorra eta azpikoa), % 2tik gorakoak, eta azken hiruhilekoan okerrera egin dute, kasu honetan Frantziarekin eta Italiarekin batera; Herbehereek, Suediak eta Danimarkak, berriz, inflazioa murrizten jarraitu dute (orokorra eta azpikoa), balio-tarte zabal batetik. Ziurgabetasunaren eta inflazio-gorakadaren testuinguru honetan, EBZren Kontseiluak (2026ko martxoaren 19a) "EBZren hiru interes tasa ofizialak aldaketarik gabe mantentzea erabaki du

¹⁶ Gobernu Zentralak Irango gerraren ondorio ekonomikoak aurre egiteko onartutako neurri sorta baten barruan. Plan horrek sektore kaltetuenentzako zuzeneko laguntzak eta kolektibo kalteberentzako babes-neurriak ere jasotzen ditu, alokairuaren prezioak aldi baterako izozteaz gain.

gaur, eta inflazioa epe ertainean % 2ko helburuan egonkortuko dela ziurtatzea erabaki du. Ekialde Hurbileko gerrak goranzko arriskuak sortu ditu inflazioarentzat eta beheranzko arriskuak hazkunde ekonomikoarentzat, eta, ondorioz, aurreikuspenak askoz ere zalantzarriagoak dira". Izan ere, erreferentzia-tasak aldaketarik gabe mantentzen dituzte, nahiz eta "inflazioa, energia eta elikagaiak kenduta, batez beste % 2,3an kokatuko den 2026an, % 2,2an 2027an eta % 2,1ean 2028an". Beraz, % 2ko helburua gaindituko du, eta hazkunde ekonomikoan izango dituen ondorioekiko kezka nagusituko da.

EB-27ko KPI bateratua eta Europako ekonomiak. Martxo, 2026

Urte arteko aldakuntza-tasa, %


	urte arteko tasa		Diferentzia 2025eko abenduarekiko (ehuneko puntuak)	
	KPI orokorra ¹	Azpiko KPIa ²	KPI orokorra	Azpiko KPIa
Eurogunea	2,6	2,2	0,6	-0,1
Alemania	2,8	2,4	0,8	0,0
Frantzia	2,0	1,4	1,3	0,0
Espainia	3,4	2,9	0,4	0,1
Italia	1,6	1,8	0,4	-0,1
Herbehereak	2,6	2,2	-0,1	-0,8
Danimarka	1,0	1,6	-0,9	-0,7
Suedia	1,5	0,8	-0,6	-1,4
UE-27	2,8	2,4	0,5	-0,2

1. HICP - KPI orokor bateratua; 2. HICP - Prestatu gabeko elikagairik eta produktu energetikorik gabeko KPI
Iturria: Eurostat

Hamabi hilabeterako Euriborraren ibilbidea¹⁷ emeki-emeki hazten ari da, nahiz eta Europako Banku Zentralak (EBZ) erreferentziazko tasak mantendu dituen, banku-merkatuen itxaropenak erakutsiz, horiek tasen igoera bat aurreratu baitute. 2025ean, hamabi hilabeterako Euriborraren urteko batez besteko balioa % 2,22koa da, 2024koa (% 3,27) baino askoz txikiagoa, baina martxoko datuak (% 2,565) ibilbide hori okertu egiten du, 2024ko urriko mailara itzuliz (% 2,691).

% 2,565eko
Euriborrarekin
(martxo)

Euriborra, 12 hilabetera (%)



Iturria: Espainiako Bankua

¹⁷ Europako bankuek urtebeteko eperako elkarri mailegatzten dioten batez besteko interes-tasa.

EAEko BPGd-a

2026ko lehen hiruhilekoan (Eustat¹⁸) euskal ekonomiak urte arteko % 2,2ko eta hiruhileko arteko % 0,5eko hazkundeak izan du, 2025ean erregistratutako sekuentzia berretsiz.


Erakundeak adierazi duenez, hazkunde hori "eraikuntzaren eta zerbitzuen portaeran oinarritzen da bereziki". Izan ere, urte arteko hazkunde-bideak % 2ko atalasearen gainetik jarraitu zuen urte osoan zehar (+% 2,1, +% 2,2, +% 2,3 eta +% 2,4, 2025eko lehen hiruhilekotik laugarrenera), eta urtearen bigarren erdian jardun hobea izan zuen, muga-zergen krisiaren iragarpenik txarrenak desagertuz joan baitziren.

Urtearen hasieran, EAEko BPGa % 2,2 hazi da

EAEko BPGd-ak % 2,3 egin zuen aurrera 2025ean.

Hiruhilekoen arteko ibilbidea positiboa izan zen, urtearen hasieran (+% 0,7) ez baitzen muga-zergen ziurgabetasun hori jasotzen, eta horren eragina txikiagotzen joan da urtean zehar. Emaita hiruhilekoen arteko hazkunde-eredu bat da, iraunkorra izan dena (+% 0,5, +% 0,6 eta +% 0,5, bigarren hiruhilekotik laugarrenera), nahiz eta Trumpen Administrazioak beste berri eta ekimen batzuk eman dituen, nazioarteko ziurgabetasun handia sortu dutenak¹⁹ eta 2026. urtearen hasieran jarraitzen dutenak, % 0,5eko hazkundearekin (aurrerapena), adierazi den bezala.

EAEko BPGd-a



Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta hiruhilekoko kontuak). Urtarokotasun- eta egutegi-efektuetatik zuzendutako datuak, bolumen kateatuko indizean eta 2022ko oinarrian.

Laugarren hiruhilekoko dinamismoa zerbitzuen eta eraikuntzaren sektoreen portaera onaren emaitza da. Ildo horretan, zerbitzuen sektoreak % 2,7 eta % 2,9 arteko hazkundeak izan ditu urteko lau hiruhilekoetan, eta EAEko hazkunde ekonomikoan duen papera indartu du. Gainera, eraikuntzak bere dinamismo handia berresten du, % 5 inguruko hazkundeekin urteko azken bi hiruhilekoetan.

¹⁸ 2026ko apirilaren 17an argitaratua; aurrerapen-datuak. Informazio osoa ekainaren 5ean argitaratuko da.

¹⁹ NATOko herrialde aliatuekin izandako gatazkak, Ukrainako gerran izan zuen papera zalantzan jartzea, Venezuelako esku hartzea, Groenlandiako buruzko asmoak...

Ildo horretan, bi sektoreen bilakaera funtsezkoa izan da EAEko hazkunde ekonomikoan; industriaren hazkunde txikiagoarekin osatzen da hori (+% 0,4, +% 0,1, +% 0,2 eta +% 0,9, urteko lehen hiruhilekotik laugarrenera) eta lehen sektorearen okertzearekin, negatiboan 2025eko bigarren hiruhilekotik.

Enpleguari buruzko datuek bat egiten dute EAEko une ekonomiko onarekin, eta hazkunde-profilari eta -mailari eutsi diote 2025 osoan (+% 1,5; +% 1,4; +% 1,4 eta +% 1,4, urteko lehen hiruhilekotik laugarrenera). Horren ondorioz, 2025ean, EAEk 998.931 lanpostu ditu lanaldi osoko baliokidetzan, hau da, % 1,4ko urte arteko hazkunde eta 2024an baino 13.928 enplegu gehiago. Gainera, milioi bat lanpostuko (LOB) hesiaren atarian geratzen da.

2025, EAEk milioi bat enplegu izan zituen (LOB)

Enpleguaren dinamismoak zerbitzuen sektorearen bultzada islatzen du (urte arteko +% 1,7; 2025 osoan EAEko guztizko enpleguaren % 72,4) eta, neurri txikiagoan, baita eraikuntza ere (urtetik urterako +% 1,9; EAEko guztizko enpleguaren % 6,2). Azkenik, industriak eta energiak gora egin dute pixka bat (+% 0,3), baina behera egin du enpleguan oro har duten pisuak (% 20,3, -0,2 ehuneko puntu), eta lehen sektoreak 2024an baino lanpostu gutxiagorekin itxi du urtea (-% 0,5).

Azkenik, aipatu behar da 2026ko lehen hiruhilekorako aurrerapen-datuek adierazten dutela enpleguaren urte arteko hazkunde (lanpostuak lanaldi osoko baliokidetzan) % 1,3koa izan dela, hau da, 12.000 enplegu gehiagoko saldo garbia, eta milioi bat enplegutik gorakoa izango dela kalkulatzan da.

...eta hazten jarraitu du (+% 1,3) 2026ko lehen hiruhilekoan.

EAEko BPGd-a, sektoreen arabera

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %						
	2024	2025	2024 IV	I	2025 II	III	IV
BPGd-a	2,5	2,3	2,0	2,1	2,2	2,3	2,4
Lehenengo Sektorea	4,3	-0,6	3,4	0,6	-0,4	-1,5	-1,2
Industria eta energia	2,0	0,4	0,7	0,4	0,1	0,2	0,9
Eraikuntza	2,0	3,7	1,3	1,7	3,1	5,1	4,9
Zerbitzuak	2,9	2,8	2,5	2,7	2,8	2,9	2,8
LOB enplegua	1,5	1,4	1,5	1,5	1,4	1,4	1,4

Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta hiruhilekoko kontuak). Urtaro- eta egutegi-ondorioei buruzko datu zuzenduak BPGd-a bolumen kateatuaren indizeari dagokionez, 2022ko oinarrian.

LAN-MERKATUA

Afiliazioa


2026ko lehen hiruhilekoan, Bilbon 199.630 afiliatu zeuden, 200.000 baino gutxiago (kopuru hori erregistratu zen azken hamabost hilabeteetatik lautan²⁰). Azken lau urteetako hiruhileko arteko atzerakadarik handiena erakusten du²¹ (-% 1,1; -2.252 afiliazio) (-% 0,2, -% 0,7 eta % 0,0, 2023, 2024 eta 2025ean), eta, aldi berean, urte arteko jarduerak positiboa izaten jarraitzen du (+% 0,3; +587 afiliazio), nahiz eta azken lau urteetako dinamismorik txikiena izan (+% 1,7, +% 3,0 eta +% 3,8, 2023, 2024 eta 2025ean).

Martxoan urte batetik bestera afiliazioak zertxobait gora egin du Bilbon (+% 0,3)

Emaizta horien arabera, enplegua sortzeko joera txikiagoa da azken urteetan baino, eta emaitza hori zehaztu egiten da hazkundera gero eta oinarri handiagoarekin sortzen dela kontuan hartzen bada: 2026ko lehen hiruhilekoko hileko batez besteko afiliazioa²² 199.722 pertsonakoa da, eta azken urteetako zifrak gainditzen ditu (185.361, 191.546 eta 197.824, 2023, 2024 eta 2025ean) eta Hiribilduaren enplegu-oinarria finkatzen du. Ekitaldiaren bilakaerak erakutsiko du Irango gerraren ondorioak (koiunturazko inpaktua) enpleguan islatzen diren ala ez (hazkundera murriztu edo enplegu-galera hasi); kontuan hartu behar da, gainera, erakartzean nolabaiteko mugara irits zitekeela enplegua (pertsona erabilgarriak).

Enpleguaren hazkundera moteldu egin da, baina oinarri handiago baten gainean

Afiliazioa



Iturria: Gizarte Segurantzza

Afiliazioaren bilakaera Araubide Orokorrak izandako igoerari dagokio (urtetik urterako +% 0,5; +772 pertsona gehiago); izan ere, konpentsatu egiten ditu Langile Autonomoen Araubide Orokorrak (-% 0,5; -114 pertsona), Etxeko Langileen Araubide Orokorrak (-% 0,8; -51 afiliatu) eta gainerako araubideek (-% 2,9; -20 afiliatu gutxiago) izandako jaitsierak. Hiruhilekoen arteko bilakaera negatiboa da kasu guztietan, eta Araubide Orokorra

Nabarmentzekoak: Araubide Orokorraren bultzada (+% 0,5, urte arteko tasa)

²⁰ Zehazki, 2025eko maiatzean, azaroan eta abenduan eta 2026ko otsailean.

²¹ Bilboko afiliazioaren bigarren hilabeterik onena (202.586 eta 201.882 afiliazio, 2025eko azaroan eta abenduan).

²² Urtarrileko, otsaileko eta martxoko batez bestekoa, joerazko hiruhilekoko erreferentzia gisa, hileroko aldakortasuna eta urtarokotasuna leuntzen baititu.

nabarmentzen da (-% 1,3; -2.188 pertsona). Hala eta guztiz ere, Araubide Orokorrak afiliazio osoaren % 85,6 ematen du, eta Langile Autonomoen Araubide Bereziak, berriz, % 11,0; Etxeko Langileen Araubideak (% 3,1) eta Gainerakoek²³ (% 0,3) ekarpen txikiagoak egiten dituzte.

Afiliazioa, araubideen arabera

	03,2026	Hiruhileko arteko Δ % (2025eko abenduarekiko)	Δ % urte artekoa (2025eko martxoarekiko)
GUZTIRA	199.630	-1,1	0,3
Araubide orokorra	170.808	-1,3	0,5
Autonomoak	21.979	-0,1	-0,5
Etxeko langileak	6.177	-0,3	-0,8
Bestelakoak	666	-3,1	-2,9

Iturria: Gizarte Segurantza

Afiliatuak, jarduera-adarren arabera

	03,2026	Pisua / guztira (%)	Hiruhileko arteko Δ % (2025eko abenduarekiko)
Lehenengo Sektorea	301	0,2	
Industria eta Energia*	8.253	4,1	--
Industria*	4.619	2,3	--
Energia*	1.127	0,6	--
Hondakinak eta ura*	2.507	1,3	--
Eraikuntza*	9.321	4,7	--
Eraikuntza*	2.802	1,4	--
Eraikuntza-laguntzailea*	6.519	3,3	--
Zerbitzuak*	181.739	91,0	--
Merkataritza*	19.272	9,7	--
Garraioa eta biltegiatzea**	10.281	5,2	--
Ostalaritza**	11.530	5,8	--
Ostatua**	1.922	1,0	--
Informazioa eta komunikazioak**	11.059	5,5	--
Finantzak eta aseguruak	7.901	4,0	--
Higiezin jarduerak**	1.635	0,8	--
Jarduera profesional zientifikoak eta teknikoak**	15.698	7,9	--
Administraziokoak eta laguntza zerbitzuak*	18.653	9,3	--
Administrazio publikoa*	12.396	6,2	--
Hezkuntza*	27.085	13,6	--
Osasuna*	15.235	7,6	--
Gizarte-zerbitzuak*	10.303	5,2	--
Aisialdikoak eta kulturalak*	4.795	2,4	--
Etxeko langileak	6.600	3,3	--
Beste zerbitzu batzuk*	7.374	3,7	--
Guztira	199.614	100,0	

1. oharra: Kopuru osora arteko aldea sektore-esleipena zehaztu gabe duten afiliazioei dagokie.

2. oharra: (*) ezin da alderatu 2026ko urtarilaren aurreko datuekin; (**) oso konparagarria da 2026ko urtarilaren aurreko datuekin

Iturria: Gizarte Segurantza

²³ Nekazaritza-araubidea eta itsasoko araubidea barne.

Enplegua irabazi edo galtzen duten jarduerak zein diren jakitea ezinezkoa da, 2026ko urtarrilean Gizarte Segurantzak Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN-25) –JESN-09ren ordezsartu zuelako afiliazioa jarduera ekonomikoaren arabera sailkatzeko. Ondorioz, lau sektore handitan banatutako afiliazioaren informazioa lehen sektorean soilik aldera daiteke, eta galdu egiten da industria eta enargiarako²⁴, eraikuntzarako²⁵ eta zerbitzuetarako²⁶, bai eta jarduerareremuen²⁷ arabera ere.

Beraz, eskuragarri dauden datuek²⁸ berretsi egiten dute zerbitzuek hiribilduko enplegu-egituraren garrantzia (guztizkoaren % 91,0), eta, zehazki, bost jarduerareremuk²⁹, hala nola merkataritzak (% 9,7), zerbitzu profesional eta zientifiko-teknikoek (% 7,9), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (% 9,3), hezkuntzak (% 13,6) eta osasungintzak (% 7,6), Bilbon sortutako guztizko enpleguaren ia erdia ematen dute (% 48,1).

Benchmarkinga. Afiliazioa

	03,2026	Hiruhileko arteko Δ % (2025eko abenduarekiko)	Δ % urte artekoa (2025eko martxoarekiko)
Madril	2.460.166	-0,1	2,8
Bartzelona	1.258.187	0,2	1,3
Valentzia	486.845	0,7	4,0
Sevilla	425.422	0,1	2,5
Zaragoza	331.203	0,2	2,0
G-5en batezbestekoa		0,2	2,5
BILBO	199.630	-1,1	0,3
Gasteiz	131.866	0,1	1,9
Donostia	128.499	-0,3	1,3
Pamplona-Iruñea	120.903	1,5	2,1
G-3ren batezbestekoa		0,4	1,8
G-9ren batezbestekoa		0,1	2,0

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: Gizarte Segurantzak

Bilbok Estatuko erreferentziatzko hiriburuekiko izan duen bilakaeraren azterketa konparatuak berresten du denek igo dutela afiliazioa urte arteko tasan, eta gutxiago (edo are gutxiago) hiruhileko arteko tasan. Konparazio batera, Bilbo gutxiago hazi da urte arteko tasan (+% 0,3 eta +% 2,5, G-5 batez bestekoa), eta afiliazio gehiago galdu du hiruhileko arteko tasan (-% 1,1 batez besteko balioaren aldean, G-5, +% 0,2). Era berean, EAEko hiriburuekiko alderaketan ere emaitza bera izan da (+% 0,4 eta +% 1,8 G-3n; aldiz, Bilbon hiruhilekoen arteko eta urte arteko tasan -% 1,1 eta +% 0,3 izanik). Hasiera batean, badirudi Bilbok balantzekoerragoa izango zuela afiliazioaren bilakaerari dagokionez 2026ko lehen hiruhilekoan.

Erreferentziatzko hiriburu guztiek hobetu dute afiliazioa

²⁴ EJSN-09ko zerbitzuen barruan zeuden 52., 72. eta 82. taldeen zati batzuk sartu ditu, eta 33. taldearen zati bat galdu du, EJSN-09ko industrian zegoena, eta EJSN-25eko zerbitzuen zatian sartu da.

²⁵ EJSN-09ko zerbitzuen barruan zegoen 82. taldearen zati bat sartu du, eta EJSN-09ko eraikuntzako 41., 42. eta 43. multzoen zati batzuk galdu ditu, EJSN-25eko zerbitzuetan sartutako jarduerataldeetan sartzen direnak.

²⁶ Aurrekoaren ondorioz, zerbitzuak ere ezin dira alderatu.

²⁷ Aldaketa kontaezinak lau digituko agregazioan.

²⁸ Hiruhilekoen arteko eta urte arteko bilakaera daten mugaegunaren arabera egingo da.

²⁹ Aurreko txostenetako etiketa berak mantentzen dira, baina behar bezalako zuhurtziaz, alderagarritasuna galdu egin baita.

Kontratuak

2026ko lehen hiruhilekoan, 26.522 kontratu berri erregistratu dira Bilbon bizi diren pertsonen artean, eta hiruhileko arteko % 2,9ko igoera izan du (+748 kontratu).

26.522 lan-kontratu berri urteko lehen hiruhilekoan

Hobekuntza hori gizonen kontratazioa bultzatzearen ondorio da (+% 4,1), emakumeen kontratazioa gutxiago hazi delako (+% 1,8), bai eta kolektibo gazteenarena (+% 5,9; +338 kontratu) eta 45 urte eta gehiagokoena ere (+% 4,2; +305 kontratu); izan ere, bitarteko adin-taldeak gutxiago hazi dira -25-34 urte bitartekoak (+% 0,2) eta 35-44 urte bitartekoak (+%1,8)-. Horiek, batera, kontratu berrien urte arteko hazkundearen % 15 baino gutxiago ekarri dute.

